

EUSKARA IKASTAROAK

2008ko UDA

ESKOLA-ESKAERAK BIDERATZEKO JARRAIBIDEAK

www.ivap.euskadi.net

**AGIRI HAU IVAPekin HIZKUNTZA PRESTAKUNTZARI BURUZKO LANKIDETZA-
HITZARMENA¹ DUTEN ERAKUNDEEI ZUZENDUTA DAGO.**

¹ IVAPekiko lankidetzaren hitzarmena honako arau honetan jasotzen da: 2005eko azaroaren 30eko AGINDUA, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. EHAA: 2005-12-19 zk. 239

UDAKO IKASTAROAK 2008 (uztaila / abuztua / iraila)

1.- Udako euskara ikastaroen helburua

Ikasleek ikasturtean zehar egindakoa finkatu eta sendotzeko helburuarekin eskaintzen ditu IVAPek udako ikastaroak.

2.- Nork egin dezake udako ikastaroa?

Deialdi hau IVAPekin hizkuntza prestakuntzari buruzko lankidetzaren hitzarmena sinatuta duten erakundeetako langileei dago zuzenduta.

Udako ikastaroa 2007-2008 ikasturtean euskara ikastaroetan ibili diren langileek soilik egin dezakete. IVAPen finantziatutako kanpo eskolatuta ibili diren langileek, eskaerarekin batera euskaltegiko edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko **egiaztagiria** aurkeztu beharko dute. Egiaztagiri horretan langilea ikastaroan matrikulatuta egon dela ziurtatu, eta asistentzia eta ebaluazio datuak jaso beharko dira.

3.- Udako ikastaroek bete beharreko baldintzak

- Ikastaroak HABEk homologatuak izan behar dira.
- Euskaltegi publikoek edo pribatu homologatuek eman behar dituzte.
- Gutxienez 90 ordukoak izan behar dute.
- Autoikaskuntza bidezko ikastarorik ez da onartuko.

4.- Eskabideak egiteko prozedura

Gehienez pertsona bakoitzak hiru ikastaro eskatu ahal izango ditu. Eskaera-orriak helbide elektronikoa honetan erabilgarri dira eskuragarri:

www.ivap.euskadi.net (euskara> euskara ikastaroak> inprimakiak).

Erakunde bakoitzak IVAPera bidali behar ditu baimendutako bere langileen eskaera-orriak, hurrengo helbide honetara: Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Eskaera-orriak IVAPera helarazteko epea: **maiatzaren 31tik 31ra**.

5.- Ordu-kreditua udako ikastaroetan

Ordu-kredituari dagokionez, Lankidetzaren Hitzarmena arautzen duen 2005eko azaroaren 30eko Aginduari jarraituko zaio.

Ondorioz, udako ikastaroetan emandako orduak gastatu egiten dute ordu-kredituaren saldoa. Horretarako, ikaslearen taldean lehenengo klase egunetik ikastaroa amaitu arte emandako eskola-orduak zenbatuko dira.

Langileak kontuan hartu beharko du hori datorren 2008-09 ikasturterako eskola-eskaerarik egiteko asmorik baldin badu, bere ordu-kreditua positiboa izan behar baita 2008-09 ikasturtean hasi ahal izateko.

6.- Udako ikastaroen antolamendua

- Baldintzak betetzen ez dituzten eskaeren kasuan interesatuei horren berri emango die IVAPek arrazoiak azalduz.

- Baldintzak betetzen dituzten eskaeren kasuan, IVAPek langileentzako **matrikula orriak** bidaliko ditu erakundera. Interesatuak eurak matrikulatuko dira aukeratzen duten ikastaroan; horretarako, matrikula orria aurkeztu behar dute euskaltegian.
- Langilea inon matrikulatzen ez bada, ahalik eta lasterren itzuli behar du matrikula orria IVAPera.
- Normalean, euskaltegi bakoitzak bere eskaintza berezitu egiten du; eta egutegiak, iraupena, ikasgelak e.a. desberdinak izaten dira euskaltegi batetik bestera. Ikastaro batzuk euskaltegietan bertan ematen dira, eta beste batzuk, aldiz, bestelako etxe edo herrietan.
- Datorren 2008-2009 ikasturtean taldeak osatzeari begira, ez da kontuan hartuko udako ikastaroan langileak egin duen urratsa, baizik eta 2007-2008 ikasturte honetan gainditu duen azken urratsa.

7.- Matrikularen ordainketa

Langileek ez dute matrikularik ordaindu behar. IVAPek hartuko du bere gain ikastaroen matrikularen ordainketa, eta barnetegien kasuan baita ostatua eta mantenua ere. Alabaina, IVAPek ez ditu bere gain hartuko bestelako gastuak, hala nola, ordezkapen-gastuak, joan-etorriak, materialak...

8.- Ikasleei buruzko informazioa eta datuen babesa

Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu, eta erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.

Lankidetzaren Hitzarmenaren ondorioz jasoko diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.

Lankidetzaren Hitzarmenera biltzen diren langileek onartu egiten dute bertan ezarritako helburuak betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Horrela, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeetara jakinaraztea bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez, eta baita euren aprobeitxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere. Onartu egiten dute baita ere, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. art.). Onartu egiten dute azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari – HABEri-, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren sei garren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera).

Ikasleei buruzko datu-pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako “Funtzionarioak euskalduntzea” izeneko fitxategian egongo da. Ikasleek Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastian kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

IVAP - 2008.04.23